

Zazpi arrazoiak M.U.-n ikasteko

2006/04/03

Hauek dira M.U. –n ikasteko arrazoirik garrantzitsuenak zuretzat:

1.Lana aurkitzeko apustu segurua

M.U.n enpresa munduko beharrian errealetara **bideratzen ditugu** gure ikasketak.

Ikasleen artean enplegarritasun maila altuena duen unibertsitatea gara; lortutako titulazioarekin zuzenean lotuta dauden lanpostuak lortzen dituzten **ikasle kopuru handiena daukagu** eta lana arinen aurkitzen dutenak dira. Hona datuak:

- %98ko enplegarritasuna
- Lana lortzeko arintasuna
- 3 hilabeteren buruan lehenengo lana.
- 9 ikasletik 10 ikasitakoan dabilta lanean.
- Proiektu lehiakorrek laguntzen ditugu
- 2001 eta 2005 urteen artean M.U.tik 24 enpresa sortu dira.

2.Enpresa mundutik gertu

Prestakuntza akademikoa eta enpresako prestakuntza oinarrietako bat dugu. 200 **enpresatik** gora duen MCCren parte izanik, gure unibertsitatean ikasten duen ikasleak **lan munduaren** beharrianak ezagutzeko aukera izango du.

- Enpresekin dugun lotura zuzen honek gure unibertsitatean ikasitako tituludun gehienek lana aurkitzea ziurtatzen du.
- Ikasketa eta lana txandatzeari. 2000 eta 2005 urteen artean, 3.500 ikasletik gora izan dira ikasketak eta enpresako lana uztartu dituztenak.
- Praktikak enpresetan, ikastetxeetan eta erakundeetan.
- Karrera-amaierako proiektuak: urtero 500 bat inguru.

3.Ikasleek ikerketa lanetan parte hartzen dute

Mondragon Unibertsitateak garrantzi handia ematen die **I+G+b** lanei. Unibertsitateak enpresa eta Teknologia Zentroekin lankidetzaren hitzarmena dauka, ikasleek **ikerkuntza proiektu profesionaletan** parte har dezaten.

M.U., MCC eta Administrazio Publikoen lankidetzari esker **Garaia Berrikuntza Polo**a sortu da, Teknologia Zentroen, enpresetako I+G departamentuen eta Unibertsitatearen arteko topagunea izan dadin.

4.Unibertsitate partehartzailea

M.U.ko ikasleek unibertsitatearen kudeaketa zuzenean parte hartzen dute, organo erabakitzaile nagusietan daukaten ordezkariaren bitartez.

Mondragon Unibertsitatea unibertsitate kooperatiboa da, eta bokazio humanista argia dauka. Gainera bere ingurunearekin, bertako gizartearekin eta bizi dugun garaiarekin konprometitua dago.

5.Etengabeko prestakuntza

M.U.n etengabeko prestakuntzaren aldekoak gara. Informazioaren Gizarteak eragindako **aurrerakuntza teknologikoen eta gizarte aldaketen** ondorioz, langile profesional eta tituludunek garai berrietara egokitu behar dute etengabe.



Horretarako graduatu ondoko ikasketak eta etengabeko prestakuntzarako **eskaintza zabalak** daukagu management, industri kudeaketa, finantza, marketing informatiko, telekomunikazio eta hezkuntza arloan.

6.Mundura eta etorkizunera zabalik

Mondragon Unibertsitateak mugigarritasuna eta elkarlanerako sareak sortzeko erraztasunak ematen ditu, **truke** programen bidez.

Azken urteotan, 500 ikaslelik gora parte hartu du Europa eta Ipar eta Hego Amerikako berrogeita hamar bat unibertsitatekin egindako truke programetan.

7.Europarekin bat datorren hezkuntza eredia

Mendeberrri proiektua garatu dugu, hezkuntza proiektu propioa eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eskakizunei egokitua dagoena.

Kalitatezko prestakuntza eskaintzeaz gain, hezkuntza eredu honen helburua profesionali gero eta gehiago eskatzen zaizkien konpetentzia eta baloreak ikasketa prozesuan garatzea da.

Funtsean nahi dena **prestakuntza akademikoan urrats** bat gehiago ematea da, gure ikasleak ondokoa egiteko gai izan daitezen:

- Norbere prestakuntzaz jabetzeko gai izatea
- Elkarlanean aritzea
- Proiektuak gidatzea
- Erabakiak hartzea
- Negoziatzeko gai izatea
- Komunikatzea

Gainera, **eredu hirueleduna** da (euskara, gaztelera eta ingelera), **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia** erabiltzea sustatzen duena.